



Zigor compliance politika

Proiektua	Zigor compliance politika
Arduraduna	Administrazio-kontseilua / Gainbegiratze- eta kontrol-organoa
Bertsioa	Hirugarrena
Data	2022ko ekaina
Nork onartua	Administrazio-kontseilua

Bertsioa	Aldaketa	Arduraduna	Data	Onarpena
Bigarrena	Arriskuen analisi berria	Administrazio-kontseilua / KGO	2020/06/15	Administrazio-kontseilua
Hirugarrena	Arriskuak eguneratu dira eta eroskeriaren aurkako betearazpen-organoa kendu da	Administrazio-kontseilua / KGO	2022/06/27	Administrazio-kontseilua

Aurkibidea

1.	Helburua	3
2.	Esparrua	3
3.	Definizioak	3
4.	Betearazpen-konpromisoak	4
5.	Zigor-arriskua izan dezaketen klubaren jarduerak	4
6.	Arauk eta debekuak	5
7.	Definizioa, kontrola eta ebaluazioa	5
8.	Komunikazioa	6
9.	Erantzukizuna eta gainbegiratzea	7
10.	Erregimen zigortzailea	7
11.	Politika honekin lotutako dokumentuak	7

1. HELBURUA

Zigor compliance politika honek, Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. enpresaren (aurrerantzean, "Kluba" edo "Eibar") Administrazio-kontseiluak hirugarren bertsioan onartutakoa 2022ko ekainaren 27an onartu zuenak, integritate-, etika- eta zuzenbidearen errespetu-kultura indartzeko Klubaren borondatea ezartzea du helburu, baita aplikatu dakiokeen legedia zorrotz betetzea ere, zigor-legediari arreta berezia jarrita.

2. ESPARRUA

Politika hau Sociedad Deportiva Eibarri Lotutako pertsona guztiei aplikatzen zaie (Lotutako pertsonatzat jotzen dira administrazio-kontseiluko kideak, zuzendaritzako kideak, Klubaren taldeetako jokalariek (lehen mailako gizonetako, gizonetako filiala eta lehen mailako emakumetako), teknikarien taldeetako kideak, medikuak eta fisioterapeutak eta bestelako langileak), baita bitartekariak, agenteak, ordezkariak, hornitzaileak, eta babesleak ere, Kluberako jarduerak garatzen badituzte edo haren izenean edo hura ordeztuz jarduten badute.

3. DEFINIZIOAK

Kontrol- eta gainbegiratze-organoa: Klubaren betearazpen-maila goreneko organoa da, eta funtzio nagusi hauek ditu: Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea eta hautematen dituen inkoherentzien edo akatsen berri ematea Administrazio-kontseiluari, eta beharrezko aldaketak proposatzea; Compliance sistema betetzen dela zaintzea eta gutxiegitasunak edo eraginkortasun ezak hautemanez gero behar diren aldaketak proposatzea eta egitea edo egin lege-aldaketek sistema aldaratu behar badute; Klubari aplikagarri zaion araudia interpretatzea; prebenitu beharreko jokabideak identifikatzea, Lotutako pertsonak jaso beharreko trebakuntza erabakitzea, baita trebakuntza hori ematea ere; noizean behin Sistemaren auditoretzat egin edo enkargatzea; kanal etikoa kudeatzea eta jasotzen diren salaketak ikertzea; Sistema etengabe monitorizatu eta kontrolatzea.

Compliance: Indarrean den legedia betetzen dela ziurtatzea helburu duen prozesu sistematiko eta etengabea, baita Klubak ezarritako protokoloak, politikak eta argibideak ere, prebenitzeko, detektatzeko, kontrolatzeko, desagerrarazteko eta, hala balegokio, Zigor compliance sistema ez betetzea daraman eta/edo zigor-arrisku bat izan litekeen beste edozein desbideratze zigortzeko. Hori guztia, etika- eta zuzenbidea errespetatzeko kultura bat promozionatzera bideratuta, ezaugarritzen gaituzten printzipio etikoetan oinarrituta.

Lotutako pertsonak: lege-ordezkariak, aholkulariak, administratzaileak, zuzendaritzako kideak, Klubeko taldeetako jokalariek Klubeko taldeetako jokalariek

(gizonen lehen taldea, gizonen filiala, eta emakumeen lehen taldea), teknikoariak eta langileak.

Hirugarrenak: laguntzaileak, hornitzaileak, babesleak, futbolari profesionalak agenteak eta/edo ordezkariak, bazkide komertzialak eta Klubaren izenean, haren kontura edo hura ordezkatzuz jarduten duen beste edozein kanpoko pertsona.

4. BETEARAZPEN-KONPROMISOAK

Zigor compliance politika hau, Kode etikoa eta gainerako protokolo, politika eta barne-araudiak (aurrerantzean, "kontrol-neurriak") Eibar Kirol Elkartearen betearazpen-kulturaren funtsezko oinarriak dira, eta ondorioz, zigor compliance kudeatzeko sistema. Horregatik, politika hau derrigorrez bete behar dute lotutako pertsona guztiek, baita hirugarrenek ere, eta ez da zigor-legedia zorrotz betetzea soilik, baita Klubaren balioen leialtasuna eta printzipio etikoak ere.

Zigor compliance politika hau derrigorrezkoa da eta, beraz, derrigorrez bete behar dute Lotutako pertsona guztiek, baita Klubarekin nolabaiteko harremana duten hirugarren guztiek ere. Xede horietarako, Politika hau eskuragarri izango dute alde interesdunek Klubaren web-orrian.

5. ZIGOR-ARRISKUA IZAN DEZAKETEN KLUBAREN JARDUERAK

Klubak konpromiso irmoa dauka Zigor-arriskuen analisiaren txostenean identifikatutako zigor-arriskuak gauza daitezkeen jarduera horien etengabe monitorizatu eta kontrolatzeko. Horrela, 2022ko apirilko Arriskuen analisiaren txostenean, zigor-arrisku hauek identifikatu ziren.

1. Jazarpen-delituak. 2. Sekretuak ezagutu eta agerrarazi izanaren delituak. 3. Negozio-arloko ustelkeria-delituak. 4. Kapitalak jaso eta zurtzearen delituak. 5. Ogasun publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak. 6. Diru-laguntzen zigor-delituak. 7. Langileen eskubideen aurkako delituak (diskriminazioa, eskulanaren legez kanpoko trafikoa, legezko lan-baldintzak ez betetzea eta prebentzio-ekipoen falta). 8. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko delituak. 9. Baliabide naturalen eta ingurumenaren aurkako delituak. 10. Lehergaiek eta beste agente batzuk eragindako arriskuen delituak. 11. Dopajea. 12. Funtzionario-eroskeriaren delitua. 13. Influentzia-trafikoaren delituak. 14. Funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak gauzatzean egindako delituak. 15. Adin-txikikoen egindako sexu-abusuen delituak. 16. Partiduetan iruzur egitearen delituak. 17. Legez-kanpoko apustuen delituak.

Zigor-arrisku horiek, gerta litezke, batez ere, jarduera hauetan.

- Kirol-lehiaketa ofizial eta profesionaletan parte hartzean.

- Kirol-jarduerak antolatzea eta egitea, batez ere, futbol profesionalarekin lotutakoak, baita jarduera horretatik eratorritako beste jarduera batzuk ere.
- Administrazio publikoekin eta agintariekin, funtzionarioekin edo langile publikoekin izandako harremanak eta interakzioak.
- Hirugarrenekin (adibidez, jokalaria profesionalen agenteak edo ordezkariak, hornitzaileak, babesleak eta beste klub edo kirol-elkarte batzuk) izandako harremanak, interakzioak, negoziazioak eta/edo kontratazioak.
- Kirol-instalazioak edo Klubaren beste edozein jabetza edo erabilera egokitzeko, birgaitzeko edo handitzeko lanak egitearekin lotuta.
- Edonolako langileak kontratatzea, eta lan-harremanak zehaztea eta kudeatzea.

6. ARAUAK ETA DEBEKUAK

Zigor compliance politika hau, eta Administrazio-Kontseiluak onartutako kontrol-neurriek, berariaz eta zehatz-mehatz debekatzen dute Klubak garatutako jardueretan eta/edo bere kudeaketan eta gobernuan delitu-ekintzak egitea.

Era berean, Politika honen helburua integritatearen eta prebentzioaren kultura bultzatu eta garatzea da, zigor-legediaren, eta Klubaren Zigor compliance politikaren eta eroskeriaren aurkako edozein jokabiderekiko zero tolerantzian oinarrituta. Borondate hori Lotutako pertsona guztien erabaki-hartzeak kontrolatzeko neurriekin gauzatzen da, zigor-arriskuak jasotzeko aukera txikitzeko asmoz.

7. DEFINIZIOA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

Zigor compliance politikak zigor compliance-ren helburuak definitzeko, berrikusteko eta lortzeko esparru bat ezartzen du, eta horien bidez, Administrazio-kontseiluak prozesu hauek ezartzen ditu:

- Klubak izan ditzakeen zigor-arriskuak identifikatu eta zehaztea arrisku horiek prebenitu eta kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak inplementatzeko.
- Identifikatutako zigor-arriskuak aztertzea.

- Identifikatzeko zigor-arriskuak gertatzeko probabilitatea eta, gertatuz gero, izango luketen eragina baloratzea.
- Noizean behin Klubak izan ditzakeen zigor-arriskuak berrikustea. Horretarako, arriskuen analisia egin beharko da, gutxienez bi urtez behin, Klubaren kontrol-egiturako aldaketek analisi hori beharrezko egiten dutenean edo zigor-arriskuak gauzatzea eragin dezaketen lege-haustekak identifikatzen direnean.
- Administrazio-kontseiluak erabateko konpromisoa erakusten du zigor compliance sistema eguneratzeko eta hobetzeko. Horretarako, gutxienez urtean behin, Gainbegiratze- eta kontrol-organoak egindako jardueren urteko txostena aztertzen du, baita compliance sistemaren eraginkortasuna aztertzen duen compliance sistemaren barne-auditoretza ere, eta Sistemaren eraginkortasuna indartzera bideratutako neurri osagarriak egin eta proposatzen ditu.
- Ezarritako baldintzak betetzeko xedez, Administrazio-kontseiluak Gainbegiratze- eta kontrol-organo independente, autonomo bat izendatu zuen gainbegiratzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko ahalmenak dituen eta Klubaren compliance helburuak betetzen direla ziurtatzeko behar adina baliabide tekniko, material eta giza baliabiderekin.
- informazioa kudeatzeko eta lege-hausteen salaketak bideratzeko prozesuak implementatzea;
- Zigor compliance gauzatzeko adierazleak aztertze;
- Sistemari ekintza zuzentzaileak implementatzea Lotutako pertsona guztien jardunean gutxitasunak hautemanaz gero, baita Klubarekin erlazionatutako Hirugarrenen jardunean ere.

8. KOMUNIKAZIOA

Lotutako pertsona batek Politikari edo beste kontrol-neurri batzuei buruzko zalantzak badauzka, Gainbegiratze- eta kontrol-organoaren zalantzen, iradokizunen edo kontsulten kanalerara eta osc@sdeibar.com helbidera jo beharko du. Era berean, Lotutako pertsonak ziur badaude edo oinarritutako susmoak badituzte, asmo onez, Sistema betetzen ez dela, bete ez dela edo beteko ez dela, kanal etikora jo beharko dute, canaletico@sdeibar.com edo, aurrez aurre joan beharko dute Gainbegiratze- eta kontrol-organoaren aurrera gertatzen denaren berri ematera. Era berean,

Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D. enpresak bermatzen du ez dela salaketen edo komunikazioen gaineko errepresaliarik egingo, asmo onez egiten direnean.

9. ERANTZUKIZUNA ETA GAINBEGIRATZEA

Eibar kirol-elkartearekin Lotutako pertsona orok printzipio etikoak eta kontrol-neurrien xedapen eta betebeharrak guztiak ezagutu beharko ditu, eta bete egin beharko ditu Klubarekin lotutako edozein jarduerara egiterakoan.

Era berean, zuzendaritzako kideek eta/edo Klubeko arloetako arduradunek bere agindupean dauden Lotutako pertsona guztiak Klubaren arauak eta printzipioak gordetzen dituztela eta bere erantzukizun- eta kontrol-eremuan, une oro, zigor compliance-ren kudeaketa-sisteman islatzen den esperotako jokabidetik ez direla desbideratzen bermatuz.

10. ERREGIMEN ZIGORTZAILEA

Politika honen aurka doan edo Politika honetan bildutakoa betetzen ez duen edozein jokabide gauzatu gero, diziplina-ondorioak izango ditu Klubaren Diziplina-kodean xedatzen denari jarraikiz, eta legea hautsi duen pertsona hori kaleratu ere egin daiteke. Era berean, politika hau, edo beste edozein kontrol-neurri batzuk, ez betetzea edo urratzea erantzukizun penal, zibil edo bestelako erantzukizun batzuk ekar ditzake legea hautsi duten pertsonarentzat edo pertsonentzat.

11. POLITIKA HONEKIN LOTUTAKO DOKUMENTUAK

- Espainako zigor-kodea.
- Eibar Kirol Elkartearen kode etikoa.
- Arau-betearazpenaren eskuliburua.
- UNE 19601, Zigor compliance kudeatzeko sistemari buruzkoa.